**KULTURA** OSO HARRERA ONA IZAN DU EDU ARRILLAGA ARGAZKILARIAREN ERAKUSKETAK **GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN • **KIROLA** JUAN MUGERZA KROSA DOMEKAN JOKATUKO DA


# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko urtarrilaren 18/X. urtea/389. zkia





LIX. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSA

## Chebil kenyarra, berriz ere Mintxetako errege?


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
ordutegi berria
1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR


URTE BERRIAREKIN BASARTE BERRITUA.
If1511PU
JATETXEA
Egunero zabalik, afariak enkarguz.
Aste osoan karta eta degustazio menua.
Lanegunetan baita eguneko menua ere.
Menu egokituak prestatzeko eta enkargatzeko
deitu 943 74 34 26 telefonora
Basarte auzoa, 4- Tel./Faxa: 943 743 426
Alejandraren sukaldaritza berria



## Sormenaren izenean

Ez dakit ikusiko zenituzten drogen kontsumoaren aurkako kanpainarako espreski egin dituzten telebistako iragarki berriak. Hiru edo lau omen dira. Horietako batean bi edo hiru urteko haurrak ikusten dira, anderefioarekin gelan, jolasten. Halako batean anderefioak esaten du: "ea, pastilleroak mesedez jar zaitezte hemen, kokainazaleak hortxe, eta haxix erretzaileak hementxe". Estreinakoz ikusi nuenean zera pentsatu nuen: "ostras! gogorra da gero". Iragarkiak harritu egin ninduen. Haur txikiak eta droga kontuak nahastu! Amaieran, off-eko ahotsak esaldi bat botatzen du gauzak argitze aldera. Prebentzioa txikitatik landu behar den zerbait dela esatera dator. Hala ere, iragarkia arrastoa uzten duten horietakoa da. Polemikoa izango da, duda barik.

Ziur nago iragarkia sortu duen publizista taldearen asmoa ez dela izan polemika piztea. Drogen aurka gure esku dagoen guztia egiteko ardura daukagula pentsatuta egingo zuten. Eta hala da. Ahalegin txikienak ere asko balio du droga kontuez ari garenean, eta bereziki, gazteen etorkizuna jokoan dagoenean. Baina zinez diotsuet, batzuetan sormenaren izenean gehiegikeriak ez ote clitugun egiten pentsatzen hasi naiz.

Ainhoa Lodoso

CD1 O O N OS



## Etorkizunari begira

Urte berri bati hasiera eman diogu eta, garai hauetan gerta ohi den bezala, geroari buruzko iragarpenak egin dizkigute alor ezberdinetako adituek. Iragarpen horietatik guztietatik, euskaldunontzat mingarrienetakoa Bernardo Atxagak abenduan egin zuena dela deritzot: "Euskararen eta euskal kulturaren egoera larria da, eta ondorioetako bat hizkuntza galtzea izan daiteke".

Atxagaren hitzek badute funtsa. Ezin uka dezakegu euskaraz bizitzeko ahalegin handiak egin behar ditugula, euskaraz ikasten ari diren gazte askok komunikatzeko gaztelera aukeratzen dutela, Durangokoa bezalako azoketan saltzen diren liburu, disko eta bestelako produktuen kopurua oso txikia dela edota ETBko lehen katea Autonomia Erkidegoko etxeetako %5ean bakarrik ikusten dela.

Baina, botila erdi hutsik dagoela esan beharrean, ez al da egokiago botila erdi beteta dagoela esatea? Mende bat iragan da Unarnunok euskararenak egin zuela esan zuenetik eta hor jarraitzen du gure hizkuntzak orduan baino osasuntsuago, guk nahiko genukeen osasun m ailara iristen ez bada ere.

Urrats garrantzitsuak eman ditugula ezin dugu ahaztu. Euskara etxeko sukaldetik txoko askotara hedatu da: eskoletara, u nibertsitatera, lantegietara, hedabideetara eta baita internetera ere. Oso urrutira ez dela iritsi? Agian ez, baina non egon den kontutan hartuta, ez da marka txarra.

Alberto Ansuategi

~11~
Kexak .......................................... 5
MOtZ MOt2 .......................................... 10
gehigarria ..........................................
kiRo1Ak ..........................................
aGenda .......................................... 14

2002-1-18

## TXAPELGORRIAK

Aupa elgoibartarrok! Nahiko berandu dan arren, abenduaren 3 lan gure kuadrilakuen ahotan ibili zan gai bati buruz daukagun iritzixa ematera ausartu gera.

Abenduan 3lian, kanpaikaden ostian, kalera jaitsi ginan lagunak poteotxo bat itxera. Baina kaletik zihar ginduazela, txapelgorri mordo bat ikusi genitxun. Bai, "papanoel"-en edo "Santa Claus" delakuan gorruak. Gure artian harridura arpeixak ikusi ahal izan zian.

Ez dogu ulertzen Espainiako eta herri garatuenetako kultura gainjartziaren ideiarik. Ez al gaude ba Euskal Herrian! Gainera, Gabonen sinbolo bezela hartzia lotzagarrixa iruditzen jaku.

Bide batez, aurreko urtian kultur etxian ipini zan Papa Noel edo Santa Claus bonbilazko irudixaz ere kejatzia nahi dogu, horrek ere nahiko polemika sortu zabalako gure artian.

Bukatzeko, gure kuadrilan hainbeste polemika sortu daban Txapelgorri eta Gabonen sinboluei buruzko iritzixakin amaitzen dogu, eta espero dogu, euskalerritarrak geranez, espainolizaziva eta kapitalismua Euskal Herritxik kentzia eta berriz ez errepikatzia.

**A.L eta M.A**
**E.N.A 0025093 D.N.I 44174510**

## EUSKAL GEZURTI IKUSTEZINAK

Gezurtiak, zer ondotxo dakizue, Ezker Abertzaleak ez duela inoiz PP eta PSOErekin hitzarmenik egin; PNV eta EAk, berriz, hamaika bider. HBri alkatetzak kentzeko, PSOE-GALekoekin gobernuan, PPrekin Bilboko udaletxean, edonon zuen txakur beltzek Espainiako sardina zaharra armekin defendatzen dute eta orain, PSOErekin diputazioetan.

Aberriaren eraikuntzaren kontra gaudela. Zuen Tio Tom Ibarretxe eta Idoia, Madrilen hiru probintzietako etxolatxoaren alokairuaren luzapena erregutzen ari diren bitartean, guk etxe osoa nahi dugu, zazpi gelekin eta dohainik, geurea baita.

Nola onartuko ditugu milaka eta milaka milioi armadari, guardia zibilari edo errege espainolari ematea, Zuberoaren garapena, Udalbiltza, eta abar luze bati muzin egiten diezuenean?

Non egon zarete zuek euskal gazteriak bere eskubideak aldarrikatu dituenean? Langabezia, etxebizitzak, ingurugiroa, intsumisioa, euskal unibertsitatea? **Nork** ezagutzen zaituzte kalean? Herri okupatu batean abertzale labela ez da Iortzen sentitzeagatik soilik. Etsaiak, herri okupatzaileak, zu abertzaletzat hartzen zaituen heinean baizik, eta horrek irainak, ilegalizazioa, kartzela, tortura eta erailketa suposatzen du. Hau al da zuen kasua? Maiatzaren lln ondo engainatu zenuten hainbat abertzale zintzo, mamua zetorrela esanda, baina mamua beti egon da hemen, eta zuen baimenarekin.

Edozein preso edo iheslariren behatz txikiaren azazkal erdiaren neurrikoduintasuna Iortzen duzuenean, hitz egin aberriaz.

**K.C.**
**N.A.N 1539.494**

# Urruzunoren begi ezkutua



Gauerdia igarota, beltzezko mantuaren babesean, bikote bat auto baten barnean dago. Farola baten argi urria lekuko dutela, hizketan ari dira biak. Beharbada, mutilak, edo akaso neskak, desiratutako bikotekidea aurkitzea eskatu zion urte berriari. Bietako batek ere ez du maitagarrietan edo sorginetan sinesten. Hala eta guztiz ere, elkartu egin dira eta gustura daudela ematen du. Baina, halako batean, hitz atseginek eztabaidari egin diote leku. Bat batean, neskak alde egin du eta mutilari bihotza hautsi zaiola dirudi.

Jon Eugi

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparanlza, 2
20870 ELGOIBAR
n94374 41 12
Publizitatea:
zr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagurreacomibarren
ARGRARATZAILEA
Elgeibarko Izarra

WewamusAEOcribaWoUdWaZuzeroANnEkAizgriu KA2kīmAk Irati Ag rreazaldegi, Asier Orbea PUBLIZGATEA Andeitz Agrregomezkorra MAKFATZAILEA Bea Ansola ADIGNISTRATIOA Arnain Bodrigez GERENT210. Jon Psli UngJen KOLAGORATZAKEM Ainhoa Lodoso, Nestor Fuentes, Pelle Mendizabal, Juan M. Elustendo, Alberto Ansuategr, Edurnel3kbao, Cookzen Arrieta, Jon Pell Uriguen. Lorea Perez de Jokin Marlinez, Otga Unzilla, Mornse Arregi, Juarrito Gorostiza, Jon Gurrubcaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.11. AZALENO ESPERA ZAHARRA Gotzon Garateren li6urulik Ixva,xAfEGIr Gertu Koop, E. TIAADA 4.025 ale LEGE GOIIIMILUA $8.1.038/92 ISSN 1139.1855

m EIGOIBARIO IZARIA
,utTol

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak era Foru Aldundiak diruz lagundurako aldizkaria.*

kutxa
esker

DANOBAT
GOITI
GRUPO DAND84T
ESTARTA

("1 Xl1





• Pedro Muguruza kalean bizi den gizonezko batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko: "Zer daka gure kaliak, zezena, txaranga, musika banda, Gabonetako argi eta musika eta gauza on guztiak gurera ez ailegatzeko? Gabonetan, adibidez, argi negargarri bat ere ez dabe jarri! Ia Udal inpuestoak ere, Madalan buelta eman eta kalian gora juten dian".

• Emakume batek honako hau argitaratzeko eskatu digu: "Azaroaren 23an, 666 sinadura bildu genituen Pedro Muguruza eta San Pedroko etxeetan autobusa gelditzeko, bestela Madalara edo San Antolinera joan behar izaten baikara autobusa hartzera. Udaletxean aurkeztu genituen sinadurak, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso".

Guk Udalera jo dugu erantzunaren eske eta bertatik, egin beharrekoa eginda dagoela esan digute: "Udalak Eusko Trenbideak enpresari luzatu dio eskaera eta erantzunaren zain dago", esan digute Alkatetzatik.



Emakume batek Udala txalotu nahi du San Roken, "Textil Hogar"-en parean, espaloira igo eta jaisteko aldapatxoa ipini dutelako.

• Herritar batek, Erregeen Kabalgata antolatzen duten katekistak txalotu nahi ditu eta bide batez, beste zerbait ere esan nahi du: "Protestatzen dutenak edo kexaren bat dutenak, datorren urtean, antolakuntza lanetan parte hartzera gonbidatu nahi ditut. Ikus dezatela nola funtzionatzen duen eta asmo txarrez ez dela, ezer egiten froga dezatela".

Barrak, Birrak eta Barreak



# "Goratunk pabiloi berria inauguratu zuen San Anton Egunean

## Teknologia zentroa egongo da 2.000 metro karratuko gunean

Joan den urtarrilaren 17an, San Anton Egunean, gune industrial berria inauguratu zuen Makina Erremintaren arloko "Goratu" taldeak. Besteak beste, Josu Jon Imazek Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak, hartu zuen parte inaugurazio ekitaldian. Jadanik bertan lanean jarduteko prest dira "Goratu"ko kideak. Arlo teknologiko zein komertzialean maila gorenera heltzea dute helburu. "Goratu"k egindako makinek (mekanizazio zentroak, fresatzeko makinak, bankada finkoko zentroak, tornuak) emaitza onak ematen dituzte mekanizazio arloan.



*Teknologia zentroa ikerkuntza eta garapenerako erabiliko dute.*

### 60 langile

Garapen eta berrikuntzaren mesedetan, produktu berriak sortu nahi dituzte kalitatea hobetzeko. Horretarako beti ere teknologia baliagarriak erabiliz. Hori dela-eta sortu dute, hain zuzen ere, teknologia zentro integrala gune berri honetan. 2.000 metro karratuko azalera du pabiloiak eta ikerkuntza eta garapenerako erabiliko dute. Guztira 60 pertsona ari dira zentro teknologikoan lanean.

Makinen ereduak diseinatu eta hobetuko dituzte bertan eta asistentzia teknikorako zerbi tzu az ere arduratuko dira. Makinak nola erabili behar diren jakiteko kontrol zehatz batzuk jakitea komeni da, eta horretarako heziketa alorrari ere garrantzia emango diote, gune berezia sortuz eta ikastaroak emanez. Bezeroentzat aurrerapausoa izango da, fabrikatzen duten makineriaren gaitasunak ikusteko aukera izango baitute tokian bertan.

1•1111U1111~2



**KUTXA-REAL SOCIEDAD** TXARTELAK

59 **Realzaleentzat bakarrik**



Zu bezalako pertsonenIzat Reala oso modu berezian sentizen dutenentzat, pentsatuak daude Kubta-Real Sociedad Maestro eta MasterCard txartel berriak.
Txarcel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, **opariak ere Iortu** ahal izango dituzu,Anoetako partiduetarako **sarreren zozketan** parte hartu,etabi **pertsonarentzako bidala baten zozketan ere bai,** gure **taldea bere desplazamenduetako batean Iaguntzeko.**
Gainera, **2002ko otsailaren I a baIno lehen** eskatu eta erabihzen baduzu, **CD zoragarri bat,Txuri-Urdin abestiaren** 5 **bertsio berezi biltzen dituena, erannango duzu oparl.**



**Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.**

www.kutxa.net

1111:1 kutxa
Zure diruaren balio erantsia



## Peio Ruidok nekazarilia ekologikoari buruzko erakusketa egingo du Elbarren

Nekazaritza ekologikoari buruzko erakusketa jarriko du ikusgai Peio Rubiok, Biolurreko presidenteak, datorren urtarrilaren 23an Debegesaren Eibarko erakusketa aretoan. Txillarre baserriko Peio Rubiok 10 urte daramatza bere produktuak Elgoibarko Merkatu Plazan saltzen. Horretaz gain, garai berrietara egokituz, internet eta telefono bidez ere egiten ditu salmentak. Erakusketa honen bidez, Debegesak eskualdeko produktu ekologikoak herritarrengana helaraztea nahi du. Erakusketa Eibarko Azitain poligonoko 7. zenbakian izango da hilaren 23an, goizeko 10:30etik 15:30era.

## Jose Antonio Gomezek eskuratu du Misqui taldearen zozketako lehen saria

Joan den astean eman genizuen Gabonetan Misqui taldeak egindako zozketako zenbaki sarituen berri, eta oraingoan irabazlea zein izan den jakinarazi nahi dizuegu. Hasieran txartel irabazlea Zumarragan saldu zela uste bazuten ere, elkartasun dendara erosketak egitera joan zenean bertan eman zioten Jose Antoniori. Zenbakia berea zela esan arren hasieran ez emazteak ezta elkartasun dendako Gemmak ere ez zioten sinetsi Jose Antoniori. Berak zeukan, ordea, txartela eta joan den astean bertan jaso zituen sari guztiak.





## Amaia Erkizia da BARRENeko publizista berria

Ia bi urtez BARRENen publizista lanean ibili eta gero, Andoitz Agirregomezkortak bere Iekua utzi eta Amaia Erkiziak hartu dio erreleboa. Hemendik aurrera Amaia izango da iragarkien bueltan gure aldizkarian ibiliko dena. Orain arte bezalaxe, herriko merkatariok harrera ona egingo diozuelakoan gaude. Agur, beraz, Andoitzi eta gure artean hemendik aurrera lanean fin arituko den Amaiari ongi etorri esatea baino ez zaigu geratzen.

## Alatrikulazio epea zabalik dago AEK euskaltegian

Elgoibarko AEK euskaltegiak "euskara ikasteko hamaika bide omen daude... AEKn onena" lemari jarraituz, berriz zabaldu du matrikula epea. Maila guztietako ikasleek eta irakaskuntzan beharrezko diren hizkuntza eskakizunak zein EGA titulua atera nahi dutenek eman dezakete izena. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute Udalaren laguntza izango dutelako. Informazio gehiago jasotzea edo matrikula egitea nahi duenak, AEKren Plaza Txikiko egoitzan edo 943 74 13 32 telefonora deituta egin dezake.

## Lapurreta egin zuten joan den astearte iluntzean Sara jantlidendan

Joan den asteartetik asteazkenera bitarteko gauean, lapurrak sartu ziren Sara arropa dendan. Palanka batekin pertsiana eta ateko markoa apurtu ostean, ahal zuten guztia eraman zuten bertatik. Txamarrak, jertseak, dirua, erlojuak, almazenean gordetako hainbat opari eta telefono mobil bat eraman zituzten besteak beste dendatik. Itxuraz azken aldiart herriko beste hainbat komertziotan izan dira lapurretak eta beste denda batzutan ere saiakerak egin dituzte.

# n kesto

2002-1-18

**HAUTS DEZENTE HARROTU DU AZKEN ATHLETIC-REAL DERBIAN SAN MAMESEKO PUBLIKOAK IZANDAKO JARRERAK**

## ZER BEGITANDU ZITZAINIZUN REALARI SAN MAMESEN ZUZENDUTAKO "A SEGUNDA" OIHU ETA KANTAK?



### IORITZ CONDE
**16 urte, ikaslea**

Oso gaizki, ez zaben kiroltasunik erakutsi. Ni berez Athleticzalia naiz, baina gaizki iruditxu jatan, eta gainera uste dot Realari lapurretia in ziotela.

### RESTI RODRIGUEZ
**53 urte, etxekoandrea**

Oso gaizki. Adiskidetasunarengatik bada ere, ez litzateke horrelakorik gertatu behar. Ni Alaveszalea naiz, baina ez dut uste Reala 2. mailan egon behar denik. Orain eskasago badabil ere, lehenago ez da hain gaizki





### JOSU ZUBIAURRE
**23 urte, ikaslea**

Bertan egon nintzan eta Realzalia naizenez, oso gaizki iruditxu jatan. "Afici6n señorial" diala esaten dabe, baina ez zaben hori erakutsi. Anoetan ere holako zeozer pasau leike, baina ez naban uste hainbesterako izango zanik.

### NEREA G1L
**14 urte, ikaslea**

Gaizki, ez dao eskubiderik holako gauzak esateko. Euskaldunak geran aldetik euskal ekipo danekiko euki bihar dogu zeozer barruan. Realzaliok nobliauak gera eta ez genduke holakorik ingo.





### IBAN GURRUTRAGA
**27 urte, kamarereoa**

Reala eta Athletic askotan anai bezala azaldu arren, zelaian etsai bihurtzen dira. Zeharo harritu ninduen Athleticzaleek azaldutako gorrotoa eta errespetu falta. Anoetan ez litzateke hori gertatuko.

### J.L. ASTIAZARAN
**Realeko presidentea**

Guretzat benetan penagarria izan zen, baina gertatutakoa ahaztu egin behar dugu. Denborak jarriko ditu gauzak bere tokian. Hori ez da gure estiloa, eta erakutsiko dugu.



---



***ESKERTZA***

*2002ko urtarrilaren 4an, 80 urte zituela hil zen IDAQUINA DE LA VEGA DE LA. VEGAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



(Udal Liburtaegiko aralboko irudia)



**1965.** urtekoa da hemen ikus dezakezuen erretratua. Madalako ermita eta San Lazaro Ospitala ikusten dira atzeko partean eta lehen planoan, berriz, eskola, baratza gordetzen zuen itxitura eta guzti. San Lazaro Ospitalak ia 6 belaunaldi daramatza Elgoibarren, lehen erreferentziak 1556 urtean agertzen dira, Koldo Lizarralde, ikerlari elgoibartarraren ospitalari eta Maalako ennitari buruzko lan batean ikus daitekeen bezala. Udal zentru bat zen eta herriko pertsona pobreei, heldu nahiz ume, babesa eman eta gaixoaldietan zaintzea zuen helburua. Karidadeko mojen ardurapean zegoen Ospitala eta mojak egon ziren bertan 125 urtetan. Baina ardura horretaz gain, eskolarena ere bazuten. 1869an hasi ziren mojalc eskolak ematen, eraikuntza berean. 1957an, Ospitaleko zati bat bota eta Madalako zubi berria inauguratu zen. Egoitza bi zatitan banatzen da, Ospitala alde batetik eta eskola, bestetik.



**2002.** urtean, Zaharren Egoitza dago lehengo Ospitala zegoen lekuan. Udalak 1979an, Ospitala ordezkatu eta Zaharren Egoitza egitea erabaki zuen. Egoitza berria 1986an inauguratu zen. Karidadeko mojek, 1999an aldegin zuten. Gaur egun Zaharren Egoitzaren funtzionamendua eta gaixoen ardura, profesionalen esku dago.

Eskolak, berriz, hainbat erabilera izan zituen. Horien artean, Gaztetxea ere egon zen bertan. 1991. urtean bota zuten eraikuntza eta parkea egin zuten.

**Juanito** Gorostiza


ejffl eae``al

ZORIONAIC

Jausoro plaza, 1 behea
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net

ELGOIBARKo DELEGAZIOAK
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATU DUEN TELEBISTA,

PEDRO MUGURUZA 9ko BIZILAGUNEN
ELKARTEARI EGOK1TU ZAIO,



DEGATUA: M. Luisa lirain Arakistain eta saria jaso zuena M. Carmen Churruca

# inforrrazioa

## INTERESEKO TELEFONOAK

### [illegible]IA

| | |
|---|---|
| Larrialdiak | 112 |
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D YA (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |

### UDALA

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| GIG (Gazte Informazio Gunea) | 943 74 14 61 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea | 943 74 35 72 |

### ADINEKOEN ETXEAK

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

### IKASTETXEAK

| | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HH1 (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H | 943 74 41 32 |
| I nstitutua | |
| Arreitu rre | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikasteixea | 943 74 13 31 |

### KOMUNIKABIDEAK

| | |
|---|---|
| BARREN | 943 74 41 12 |
| El Diario Vasco | 943 74 40 73 |
| El Correo Español | 943 74 10 82 |
| Zazpiki irratia | 943 74 34 74 |
| Egunkaria | 943 30 02 22 |
| Gara | 943 31 69 99 |

## Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 19 Bidasolo | Bidasolo |
| 20 Bidasolo | Bidasolo |
| 21 Etxeberria (Santo Ana kalean) | Etxeberria |
| 22 Fernandez | Fernandez |
| 23 Yudego | Yudego |
| 24 Zabaleta | Zabaleta |
| 25 Etxeberria (Errosorio kalean) | Etxeberria |

**FARIVIABAK**

**IBAÑEZ**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,
Herr1ko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze,
Tel: 943 75 13 84
1eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

20 igandea Fotero

## *Eusko Tren*

BIENAK *Eusko* at TOBUSAII

**DONOSTIA-B1130**
**Egunero**
DonosilanARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
jaiegunetan 7.45ean hetsikn cia orcluera egungo dire

**BILBO-DONOSTIA**
**Egunero**
**Billx)** **06:00** 2000
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
• taiegunetan 8 00eian hasiko dira eta orduero egongo dira

MENDARO-ELGO1BAR
**Egunero**
**Mendaro** 07.50 08.50 21.50

**ELGOIBAR-MENDARO**
**Astegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
**Elgoibar** Ot1.25 09.25 10.25... 21.25

## PES,AUTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

**EIBAR-ONDARROA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | o6.6o |
| Muiriku | 00,55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

**ONDARROA-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.10 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoihar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eihar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako itlfonnazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.*


**Cordon,Vilarchao, c.b.**
**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIAIAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



**karkizano**
San Fraidzisko, 14 - 943 74 05 49

*Arrieta*
San Bartoknne, 18
TeL 943 74 08 49

Unai ArriEtaELKARRIZKETA MobilakGA1A ihigo IrazabalbEitiaLoTsAGABE

# Gaztia Barren

**a NAIZ**

GAZTE GEHIGARRIA · 2002ko urtarrilaren 18a. X urtea/389. zkia



## Mobiletako mezuak:

# Motzak baina mamitsuak

## C'ETORKIZUNAREN SUSTRAIA1

agunek gomendatuta entzun zuen lehen aldiz Eneritzek Asg arthen Etork zunaren sustraia", diskoa eta ordutik bira asko eman ditu. Bost 2aztek osatutako taldea da Asgarth eta IZ disketxearekin kaleratu dute lan hau. "Neri euskal musikia gustatzen jata. baina ez estilo horretakua. Hala ere, entzun eta gustau in jatan". Taldeak batez ere musika gogorra egiten du roek eta heavy arteko zerbait, baina ahesti erromantikoak ere, ba omen ditu Eneritzen hitzetan. "Orokorrian dana gustatzen jata. Kontzertuan entzun ditxut eta kantantian ahotsaz gain, kantantia bera ere gustatzen jata". Gehien baladak uustatzen zaizkio: "Heriotzaren aurpetzia' eta 'Zure zai'. lasaixenak dia". Musika bera ez ezik ahestiaren letrak ere gustatzen zaizkio Eneritzi: "Kantuen letriagaitxik-edo Asgarthek rekuerdo onak ekartzen dizkitx".



Eneritz Gonzalez

u

# UNAI ARRIETA, eskubaloi jokalaria

## "Jokalari tormazioa jarraitzE zituEn taldEarEn bila hasi, Eti

**21 URTE ASTE HONETAN BETE BERRI, HIRU ANA1-ARREBEN ARTEAN BIGARRENA, ELGOIBARTARRA ETA KIROLARIA. HORRELA ESANDA, ELKARRIZKETA ELGOIBARKO EDOZEIN GAZTERI EGIN DIOGULA PENTSA DAITEKE. BAINA, GAUR EGUN, KANARIAR IRLETAKO "GAIDAR" ESKUBALOI TALDEAN ARI DELA ESATEN BADUGU, BATEK BAINO GEHIAGOK JAKINGO DU UNAI ARRIETAZ ARI GARELA. GABONETAKO OPORRAK APROBETXATUZ, BUELTATZEKO HEGALDIA HARTU AURRETIK BERE BIZIMODUAREN BERRI EMATEKO ESKATU DIOGU UNAIRI.**

**Zenbat urte eskubaloian jokatzen?**

Zazpi bat urte izango dira eskubaloian nabilela. Hasieran futbolerako joera banuen ere, Ikastolan eskolarteko jokoetan bizitako esperientzia zoragarriak zirelaeta, futboIa baztertu eta eskubaloiari heldu nion. Kadeteetako bi urteak etxean jokatu nituen. Jubeniletako bi urteak Eibarko J. D. Arraten. Senior mailarako saltoa ematera Irunera alde egin nuen eta bi urtez izan nintzen bertan, C. D. Bidasoan. Liga nazionalean jokatzeaz gain, lehenengo minutuak izan nituen Asobal ligan. Aurten Kanariar Irletan nago,'B.M. Galdar"-en, Ohorezko mailan.



**Zer dela-eta joan zinen Kanariar Irletara?**

"C.D. Bidasoa" eskubaloi munduan izan den talde handienetakoa da. Azken urteetan nahiko txepel ibili bada ere, taideak Europako txapeldun zireneko filosofia eta jokaera bera du. Horiek ez dira baldintzarik onenak goi-mailako eskubaloian sartu nahi duen esperientziarik gabeko gazte batentzat. Lesioek ere ez naute errespetatu.

# baldintzarik onEnak bEtEtzEn Kanariar irlEtara iritsi naiz"

HaIa ere, esperientzia positibotzat daukat Irunen bizitakoa. Pasa den denboraldi bukaeran, jokalari formazioan jarraitzeko baldintzarik onenak betetzen zituen taldearen bila hasi nintzen. Horrela iritsi naiz Kanariar Irletako'B.M. Galdar" taldera.

**Moldatu al zara ala gogorra egin zaizu Kanarietako bizitzara ohitzea?**

Klima eta lurralde berezi honetara moldatzen ari naiz, baita taldearen dinamikara ere. Herrialde eta kultura ezberdin bat da, bizimodu lasaiagoa, klima tropikalagoa.

> "Klima eta lurralde berezi honetara moldatzen ari naiz, baita taldearen dinamikara ere"

**Eskubaloirik gabe, une honetan zer litzateke Unai Arrieta?**

Hasi berria naiz mundu honetan eta, ilusioak dirauen bitartean, jarraituko dudalakoan nago. Gauzak trakets dihoazenean, hartutako erabakiak zalantzan jartzeko joera normala da, baina ez naiz damu orain arte hartutako erabakietaz. Daukaguna baloratu beharrean, ez daukaguna desiratzeko jarrera izan ohi dugu. Afiziotzat daukat momentuz, eta nola edo hala, ikaskidekin jarraitzen dut. Kirol motibazioek pisu gehiago dute niretzat, nire taldekideentzat eskubaloia ogibidea bada ere.

**Euskadiko selekzioarekin jokatu duzu Gabonetan.**

Aurrez kadete eta jubeniI maiIan jokatua nintzen, baina selekzio ahscrlutuarekin debuta egin dut. Ilusio handia egin zidan euskal selekzioarekin jokatzeak. Partidu bat baino, jai bat eta euskal selekzioaren aldeko erreibindikazio bat izan zen niretzat. Gainera Euskal Herrian selekzioa sortzeko adinako maila dagoela erakutsi dugu. Jokalariak badaude, afizioa, zer esanik ez, eta gainera, euskal selekzioarekiko onarpena nabarmena da. Ahalik eta kiro gehienetan Euskal Herriko Selekzioa izatea espero dut.

**Orain arte zein balorazio egin dezakezu?**

Balorazioa positiboa da. Gogor ari naiz lanean, talde honek eta entrenatzaileak ematen duten Iasaitasun eta patxadaz. Taldean daukadan partehartzearekin ere oso gustura nago. Etxetik kanpoko bizimodura ere ari naiz moldatzen. Mundu honetan aurrera egiteko hartu beharreko erabakia zen etxea uztea eta horrelaxe izan da. Momentu batzuetan gogorra egiten den arren, ilusioak eta gogoak arintzen ditu gure herritik kanpo egoteak sortzen dituen hutsuneak.

> " Euskal Herrian eskubaloi selekzioa sortzeko adinako maila dagoela erakutsi dugu. Jokalariak badaude eta afizioa zer esanik ez"



## :GAIDU ARTE"

a k u r r

Juan Luis Zahala idazlearen Galdu arte lana izan da Maialenek irakurri duen azkena. Institutuan ernandako zerrenda hatetik aukeratu, irakurri eta gustatu zaiola esan digu. "Idazteko modua ez jata asko gustau, oehixao oaixa zeri buruz idazten daban. Gaztetxeko mobideri buruz hitz egiten dau liburuan". Benetako gertakizunetan oinarritutako Iiburua da "Galdu arte". Azkoitiko gaztetxeari buruz hitz egiten baitu. "Istorixia henetan pasatt zan. baina datuak aldatzen ditxu... eta horrek idazteko modua ere moldatzen dau. Baina orokorrian gustora irakurri dot". Klasean landutako gairen bat piska bat lantzeko ere halio izan dio Maialeni irakurketa honek: "Hika asko **erahiltzen dau** eta entzunaua eitxen edo ulertzen Iaguntzen dau, eta gaztiok hika hitz egiten *ez* dakigunez...". Liburuak gazteak ditu protagonista. Beraz, gazteentzat goinendagarria da.




**Niaialen Astigarraga**

# Mobilizatu G

EnprEsa komunikaziorako sortu bazirEn ErE, gaztEtxoEn Erabilerak Egin du ezagun SMS (Short MEssagE SErvicE- MEzu motzen zErbitzua) izEnEz EzagutzEn dEn tElEfono mobilEn MEZU sistEma. GEhiEnez 160 hizki idazteko aukEra EskaintzEn duEn sistEma hau mErkea izanik, gEro Eta gaztE gEhiagok Erabiltzen du komunikaziorako. GaztE asko ikusten ditugu kalEan tElEfono mobila Esku artEan dutEla mezuak idaztEn. (kErkEta batEn arabEra, mutil gazteek ligatzeko Erabili ohi dituztE mEzuak; nEskek, bErriz. kotileorako. MEzuEn sistEmak hizkuntza propioa omEn du, eta laburdurak dira nagusi. Guk SMS horiEi buruzko hainbat argibidE emango dizkizuEgu, eta baita ErabiltzailEEn hitzak zuEnganatu ErE.



## CMEZUEN HIZKUNTZA)

- MEZUAK GAZTELANIAZ IDAZTEN DIRA.
  ZENBAT ETA HIZKI GUTXIAGO ERABILI, HOBE.
  ORTOGRAFIARI EZ ZAIO GARRANTZIARIK EMATEN: "V", "H ETA TILDERIK EZ DAGO, "LL" "Y" BIHURTZEN DA ETA BOKALEK ERE PISU GUTXIAGO DUTE,
- SINBOLO BIDEZKO HAINBAT ESPRESIO ERE ONARTUTA DAUDE.

### ONURAK

- GAZTE LOTSATIEI LAGUN ARTEAN ERRAZAGO MOLDATZEN LAGUNDUKO DIE.
- KOMUNIKAZIOA ETA SORMENA BIZKORTUKO DITU.
- EDUKIAK LABURTZEKO GAITASUNARI MESEDE EGINGO DIO.





» IkasIE txartEla,
AtErpEkidE
(albErgista) bortEla,
irakasIE txartEla
GaztE txartEla
bErtan Egingo dizugu!

g informazioa

KULTUR ETXEKO 2. SOLAIRUA - NAFARROA PLAZA, 3 Tel. 943 741 461 E-maila: elg.gzerbitzua@terra.es
Astelehena - asteartea - osteguna - ostirala: 1 7:00etatik-20:00etara Larunbata: 1 0:00etatik - 14:00etara

# ERAB I LTZAI L EA

**GAZTEA (15-35 URTE)**
**IKASLEA EDO LANGILEA**
**AURRE ORDAINKETA SISTEMA ERABILTZEN DU.**

szmwor

## MEZUETARAKO ZEINUAK

| | |
|---|---|
| ;-);) | Konplizitate keinuak aurpegi irribar tsuan. Brometako komentarioetarako. |
| | Erreberentzia. |
| | Barkatu edo eskerrik asko. |
| :-Q | Ez dakit zeri buruz ari zaren. |
| | Nekatuta nago. |
| ?! | Idearik ere ez. |
| +trd | Beranduago (mas tarde) |
| bboo | **Muxuak** (besos) |
| ins | Institutua. |
| kuntam | Esaidazu (euentame). |
| B-I | Eguzkitako betaurreko merkeak. |
| :-)8 | Ongi jantzita. |
| =o"li | Flekilo oso luzea. |
| :-R | Gripea daukat. |
| :-). | Zilborra sartuta. |
| :/; | Ez erretzailea. |
| -:-) | Punk rockerra. |
| &;-P | Ligoia |



## ARRAKASTAREN ARRAZOIAK

**1. Telefono mobilen kopuruak gora egin du azken aldian.** Espainia sakeleko telefono erabiltzaileen zerrendan lehen postuan dago.

**2. Tarifa merkeak:** Minutu eta erdiz telefono mobiletik hitz egiteak 0,66 euroko kostua du, tarifarik merkeena kontuan hartuta. Mezu bat bidaltzea, berriz, 0,15 euroko baino ez zaigu kostatuko.

**3 Komunikazioa intimoagoa da:** Badira hainbat gauza hitzez baino idatziz errazago esan ohi direnak.

# Jokin Altuna, Oihana UnzEtabarrEnEtxEa Eta MirEn Bastida

**Zertarako erabiltzen dituzue mohileko mezuak?**
**Oihana:** Urrutiko Iagunekin komunikatzeko, edo kuadrilakuekin gelditzeko.
**Jokin:** Klaseko gauzak galdetzeko ere erabiltzen da. Kanpora jun eta etxekuekin edo lagunekin kontaktuan egoteko ere mobila erabiltzen dogu.

**Egunean zenhat mezu hidaltzen dituzue?**
**Miren:** Igual aste baten ez dot mensajerik bialtzen eta gero egun bakar baten 10 idazteko kapaza naiz.

**Hizkuntza herezirik erahiltzen al duzue mezuak idazteko?**
**Jokin:** Nik hitzak gehixenetan osorik idazten ditxut.
**Miren eta Oihana:** Erderaz idazten ditxugu mensajiak, eta zenbat eta laburrao hobe: "h" ez da idazten, bokal danak kenduta... Behin ikasitxakuan ez da zaila mensajiak idaztia.

**Zuek ordaintzen al duzue mohileko tarifa?**
**Jokin:** Bai, guk pagatzen dogu. Ahal dogunian kargatzen dogu, eta bestela, ez deirik ezta mensajerik ere.

**Naharitu al duzue gazteek mobila gero eta gehiago erahiltzen dutela?**
**Miren:** Mobila gero eta jende gehixaok daka, baina internet askoz ere gehixao erabiltzen dogu gaztiok.

**Bizioa bihurtu al daitele?**
**Oihana:** Neretzat bai. Euki nuan mobilik gabe ibili ezin nintzan tenporada bat. Kastigau in ninduten eta mobila kendu, baina bueltau diate eta oin ez dot hainbeste erabiltzen.
**Miren:** Nik kajoian eukitzen dot eta batzutan deitxu diatela ere ez naiz enteratzen.



# lots@gabE

*Guruzne Urkicii, Jokin Altuna eta Miren Bastidaren laguntzarekin egiten dugu atal hau. Parte hartu nahi baciuzue cieitu edo etorri BARRENera, Animatu!*

**@ Definitu ezazu zure burua.**
Mutil sanua eta lotsagabia, noski.

**@ Zer egiten duzu neska bat gogoko duzunean?**
Nere dantza erakartzailia eitxen diot.

**@ Errealitate bihurtzea nahi duzun ametsen bat?**
Kinielia tokatzia.

**@ Gogoko duzun neska bati zer esango zenioke zurekin fijatzeko?**
a. Atsegin zatzaizkit.
b. Nire bihotzeko azukre koxkorra.
c. Zu ikustean odola bor-bor jartzen zait.
Hirurak txandan, nere besuetara erori arte.

**@ Etorkin bat kalean botata ikusiko bazenu, zer egingo zenuke?**
Aizu, baserrixan badakat zuretzako lekua.

**@ Zer ikusten duzu ispiluan begiratzean?**
Joe, hori da ilia haztia.

**@ Zenbat diru daukazu kontu korrontean?**
Zer da hori?

**@ Eramaten al duzu kondoirik karteran?**
Ez, baina neskia topautakuan...

**@ Zein arropa mota duzu gogoko?**
Komodua.

**@ Kalkulurik egin gabe: Zenbat pezeta dira 13 euro?**
a. 1918
b. 2053
c. 2163
*c. 2163*

**@ Ondorengo programetatik zein duzu gustukoen?**
a. Esta es mi gente.
b. Sabor a ti.
c. Operaci6n triunfo.
*a. Esta es mi gente*. Bañe eitxeko.

**@ Zein musika talde duzu gogokoen?**
Asgarth.

**@ Ondorengo talde hauetatik zein aukeratuko zenuke?**
a. Azilcar Moreno.
b. Tamara (No cambie)
c. David Civera
Bat ere ez.

**@ Egia al da animaliek beren jabeen antza izaten dutela?**
Nire kasuan ez, begi bistan dago!



http:/ iñigoirazabalbeitia@com / 16 urte

## LEMOKEITO LIBJRU BATeskuratu rTl atu

ogarra

HILABETE HONETAN "LARUNBATAX", JON ARRETXEREN LIBURUA ESKURATZEKO HONAKO RALDERA HONI ZUZEN ERAIMUN BEHAR DIOZU:

MONGOPi jOil fiRRETXL INZLE GPIZTEEI?




**Aurreko liburuaren lehiaketako irabazlea IMANOL SANTOS izan da. "Narry Potter eta sekretuen ganbera" liburua eskuratu du Imanolek. Erantzun zuzena J.K. Rowling zen. Zorionak.**

11/111111~ eta LILEARIAMEM ailltileeneren artake lameir eakamtia nulmielt abr ele haakelmekr

## Handia izandakoan...
# mEdikua





**EDUARDO IÑIGEZ**

***Medikuntzako karrera aukeratu zuen Eduardo Thigezek, eta orain MIR azterketa prestatzen ari da. Gogorra eta luzea da mediku izatera iritsi aurretik igaro beharreko bidea. Hala ere, piskanaka helmuga gertuago dauka Eduardok. MIR azterketaren atarian, berarekin izan gara, bere ikasketei buruz berbetan.***

**Zer dela-eta medikuntza?**
Institutuan zientzietako karrerak gustatzen jatazen. Luzia zalako dudak euki arren, interesgarrixena zan.

**Zer da MIR azterketa?**
Oposizio bat da, Esamin bat, baina karreran ikasitxako edozer gauza galdetzeko aukeria daukate. Esamina ein, postu bat atera eta horren arabera, aukeratzen da espezialidadia.

**Zenbat denbora ematen duzue egunean ikasten?**
Nere akademixako sistemia mateeriari **3** buelta ematia da: maiatzetik urrira astero gai bat landu; urritik esamina baino 21 egun lehenaora bigarren bueltia; eta gero azkena. Astelehenetik ostiralera liburutegixan eta etxian ikasten dogu, 8- 10 ordu egunian, eta zapatuetan klasia eukitzen dogu Bilbon.

**MIR azterketa gainditzuz gero...**
**6** urte ikasi eta esamina eitxen ez bada salida gutxi daoz, espezialidade gehixenetarako filtro hau pasau bihar da. MIR ateratakuan espezialidaderako formaziva dakagu lanian, baina gero inork ez dau aseguratzen lan horretan jarraitxuko dozunik.

**Zein irtenhide daude azterketa gainditu ezean?**
Anbulantzietan edo enpresa batzutan lan eitxia, forense izateko beste oposizio batzuk daude, edo bestela extranjerora jun eta han espezialidadia eitxia.

**Zerk erakartzen zaitu sendagileen lanbidetik?**
Batetik, giza-gorputzari buruzko ezagutza eukitziak. Bestetik, ospitxalian eindako praktiketan ikusi dot gaixorik egon eta aurrera urten dan jendiak zenbat eskertzen daban gure lana eta horrek ere satisfakziva ematen dau.

**Zeri egin diozu uko MIR azterkeia dela-eta?**
Lagunak astian zihar gutxi ikusten ditxut, Ostiralian bueltatxo bat ematen dot, baina... Agobiauta banao, deskonektatzeko deportia eitxen dot, horri ez diot renunziau.

### MEDIKUNTZA

**ZENBAT URTE?**
**6 urteko karrera**

**-3TATZEN**
Urtebete

**ESPEZIALIDADEAREN ARARERA**
**Familia medikua**
3 urte
**Espezialidade medikoak**
**4 urte**
**Espezialidade kirurgikoak**
5 urte

Fisiologia, Anatomia,
Barne-medikuntza, Zirugia

# sexua tatea



Eli Moreno
SEXOLOGOA

**"¡ELI, CON DOS COJONES!"**

Pasa den astean esan zidaten BARRENerako zerbait prestatu behar nuela, eta egia esan "me pillaron en bragas", ez nekien zeri buruz idatzi , blokeatu egin nintzen, "¡Que cofiazo". Gainera astea ez da onegia izan, nekatuta, lanpetuta, pasa dut "hecha un potorro". Baina bueno, gaiari buelta asko eman ondoren nire buruari esan nion: "¡Eli, con dos cojones!", eta aurrera egin nuen. Nahiz eta gaiari buelta asko eman, eta momentu batzuetan "hasta los cojones" egon, azkenean prestatu dut, "ies la lla!". Egunero entzuten ditugu horrelakoak, mutila zein neska izan, berdin du. Edozeinek egiten ditu horrelako komentarioak, eta ez gaituzte hanitzen. Progreenok, liberalenok, lau haizetara sexuen arteko berdintasuna ezberdintasunean defendatzen dugunok, euskararen normalizazioa bilatzen dugunok, horrelakoak egiten eta esaten ditugu, hizkuntza eta gizarte sexista bultzatzen ari garela konturatu gabe. Horrela hitz egiteari lagazteko ezin al dugu ezer egin

*Hemendik aurrera zutabe honetan cexuari buruz ariluko gara. Gai honen inguruko zalantza edo interes berezirik izanez gero, bidali zuen eskaerak, galderak, edo gaiak helbide honetara: Gazte Informazin Gunea. Kultur Etxea. Bigarren sokiruan. TeL 943 74 14 61. E-maila: elg.gzerbitzua@terra.es*

# kontzertuak

## URTARRILA

### 18 barixakua

**ARETXABALETA**
23:00 **Deba Korkons**
Gaztetxean

**AZKOITIA**
22:31) **Autoa+ sorpresak**
Azken kontzertua, Mataderuan

**BERGARA**
22:00 **Ira et Decesus eta Nor Jainkoa Bezala**
Gaztetxean

**DURANGO**
22:30 **Joseba Tapia**
San Agustin Kulturgunean.

**SORALUZE**
**22:30 Klorofila eta Serial Number**
Gaztetxean

### 19 zapatua

**ARRASATE**
22:00 **Lif, Izaera eta Spank**
Gaztetxean

**BERGARA**
22:30 **Astrozombies, Captain Nemo eta Los Huevos de Kinder**
Gaztetxean

**ELORRIO**
*22:30* **Ruper Ordorika**
Arriola Kultur aretoan

### 24 EguEna

**BILBO**
22:00 **Jabier Muguruza**
Kafe Antzokian.

### 25 barixakua

**ELGOIBAR**
22:30 **Special quest, Humus eta Barricada**
Gaztetxean

**VILLABONA**
22:30 **Kepa Junkera**
Olaederra kiroldegian

### 26 zapatua

**BERGARA**
22:00 **Iced Earth**
Jam aretoan. 2.800 pta.

**OIARTZUN**
22:00 **Koma**
Pagoa aretoan

### 2 zapatua

**BILBO**
22: 00 **Mojinos escozios**
Kafe Antzokian

### 8 barixakua

**DONOSTIA**
19:30 **Slipknot eta American Head Charge**
Ilunbe zezenplazan

### 10 domEkiE

**BILBO**
19:00 **Incubus eta Hoobastank**
Casilla kiroldegian

### 15 barixakua

**BILBO**
7 1: 111 **Albert Pla**
Kafe Antzokian

### 28 EguEna

**BILBO**
**22:00 Manta Ray & Schawartz**
Kafe Antzokian




Ander Sanchez

## Cuscoko haurren skainiko du Barricadak hilaren 25ean, Gaztetxean



Argazkian Gemma Agirregomezkorta Barricada taldeko kideekin.

Misqui Elkartasun Taldea jo ta ke ari da Peruko Cusco herrirako dirua biltzeko lanean. Dagoeneko 15.000 euro (2,5 milioi pezeta) bildu dituztela azaldu digu Gemma Agirregomezkortak, elkartasun taldeko bultzatzaileak. Diru gehiago lortzeko asmoarekin, rock jailaldi bikaina antolatu dute urtarrilaren 25erako (barixakua). Barricada rock talde mitikoaren kontzertua izango da jaialdiko ekitaldi nagusia. "Drogas" kantariak gidatuta, lehengo eta oraingo abestiak joko ditu Irutieako taldeak. Urretxuko "Special Quest" eta Tolosako "Humus" taldeak arituko dira telonero lanetan. Gaueko 22:30ean hasiko da kontzertua. Prezioa 3 eurotakoa izango da. Gemmak orain arte diruz lagundu duten pertsona guztiak eskertu nahi ditu eta baita kontzertura joan daitezen animatu ere, "inoiako lotsarik gabe eta aurriritziak etxean lagata, era eta adin guztietako jendea animatu nahi nuke Gaztetxera". Dena dela, Fila 0 bat egongo dela aipatu digu, hau da, kontzertura joan nahi ez dutenek, edo ezin dutenek diruz lagundu ahal izango dute proiektua. Elkartasun dendan (18:00etatik 20:00etara) eman daiteke laguntza hau.



## Irreitur guztiak hautsi ditu Eduardo Arrillagaren argazki erakusketak

3.200 bisitari izan ditu Eduardo Arrillagaren "Sokamuturra" argazki erakusketak. Ongarri Argazki Kolektibotik adierazi digutenez, 3.200 bisitari pasa dira Kultur Etxetik abenduaren 14a eta urtarrilaren 7a bitartean. Jokin Martinez, Ongarriko lehendakariak azaldu digunez, "Arrakasta izugarria izan da. Batetik, guk antolatutako erakusketa batera inoiz hurbildu den jende kopuru handiena izan baita, eta bestetik, Eduardok, elgoibartarra izanik, bere herrian profeta izatea lortu duelako. Gainera, elgoibartarrak ez ezik, kanpoko jendea ere hurbildu da erakusketara, Mutrikutik, Oñatitik, Bergaratik... eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Azkenik, izan ditugun bisitari guztiak eskertu nahi nituzke".

## "La Mugre y la Furia" eta "La Espalda del Mundo" dokumentalak eskainiko ditu Ongarri Zine Klubak

### Bata, hilaren 24an eta, bestea, 31 n izango dira Herriko Antzokian

Ongarri Zine Klubak dokumentalari ateak ireki nahi dizkio eta datozen asteotan modan dagoen genero honetako bi dokumental eskainiko ditu. Lehenengoa "La Mugre y la Furia" izango da urtarrilaren 24an, eguenean. Julien Temple zuzendariaren filme honek, punk mugimenduaren sinbolo bilakatu zen Sex Pistols talde britainiar polemiko eta mitikoaren gorabeherak kontatzen dizkigu.



Sex Pistols taldearen "La mugre y la furia" hilaren 24an, eguena, gaueko 21:30ean hasiko da.

Bestalde, urtarrilaren 31n "La Espalda del Mundo" dokumentala ikusi ahal izango dugu Ongarri Argazki Kolektiboaren laguntzaz antolatutako zine emanaldian. Elias Querejetak ekoiztu eta Javier Corcuerak zuzendutako luzemetrai da. Bertan, 3 istorio desberdin kontatzen dira. Lehenengoan familiari laguntzeko lan egitera behartuta dagoen 11 urteko mutiko peruar baten istorioa kontatzen zaigu. Bigarren istorioko protagonista, pentsatzen duena esateagatik 15 urte gartzelaratuta dagoen emakume kurdo bat da. Azken istorioak Texaseko heriotzaren korridorean gartzeleratuta dagoen gizon afroamerikar baten egoera azaltzen du.

# Goi mailako partaidetza izango du Mintxeta Atletismo Taldeak antolatzen duen estreinako Mugerza Krosak

## Chebil, Kamathi eta Mugi kenyarrak eta Lebid ukraniarra dira faborito nagusiak




*Ego-toki elkarteko Atletismo batzordekoek, oroigarria jaso zuten egindako lanarengatik. Eskuman, Krosaren aurkezpen ekitaldia.*

Abraham Chebil kenyarra, iazko irabazlea eta pasa den igandean Italikako kroseko garailea, da Mugerza Krosaren 59. edizioa irabazteko faborito nagusienetako bat. Ez bakarra, ordea, Mintxeta Atletismo Taldeak, Elgoibarko Udalaren laguntzaz, antolatu duen lehen probak goi mailako partaidetza izango baitu. Astelehenean (hilak 14) egin zuten aurtengo Juan Mugerza Memorialaren aurkezpena, antolatzaileek eta babesleek, udaletxean. Bertan, Ego-Tokiko Atletismo batzordeak merezitako omenaldia jaso zuen hainbeste urtetan egindako lanaren ordainetan.

Kirol arloari dagokionez, Chebilek aurkari gogorrak izango ditu domekan, San Sebastian Egunean. Gordon Mugi gazteak eta Charles Kamathi herrikideak ez dizkiote gauzak erraztuko. Batez ere Kamathik, Edmontoneko Munduko Txapelketan urrezko domina irabazi baitzuen 10.000 metrotan. Horrez gain, iazko Munduko Kros Txapelketan 3. postuan sailkatu zen Belgikan. Afrikarren arerio nagusia Sergiy Lebid ukraniarra izango da. Pronostiko guztiak hautsiz, bigarren egin zuen Ostendeko Munduko Kros Txapelketan eta, 98an eta aurten, Europako Kros txapelduna dugu. Robert Stefko eslobakiarra eta Giulano Batocletti italiarra ere Mintxetan izango dira eta baita Chema Martinez eta Carlos Adam espainiarrak ere.

**Guztira kategoria desherdinetako 9 lasterketa jokatuko dira. Lehen proha 10:30ean hasiko da**

Emakumezkoen lasterketak maila baxuagoa izango du. Hala ere, Chantal Fontaine frantziarra, Jesenia Centeno kubarra, Wabi Kenza marokoarra, Olivera Jectic yugoslabiarra eta Colleen de Rueck hegoafrikarra dira partaide aipagarrienetako batzuk.

### Lasterketa gehiago

Hiru berrikuntza nagusi izango ditu aurtengo Mugerza Krosak. Lehen berrikuntza lasterketa kopurua izango da. Orain arte junior eta senior mailako 4 proba izaten ziren. Domekan, berriz, 9 lasterketa ikusi ahal izango ditugu Mintxetan goizeko 10:30etatik 14:00etara bitartean.

### Zirkuitoan aldaketak

Bigarren berrikuntza zirkuitoari dagokiona da. Igerileku berria dela-eta, itzuli bakoitzeko ibilbidea zertxobait luzeagoa izango da. Bestalde, korrikalariek barrualdetik itzuli gehiago emango dituzte, jendeak korrikalariak hurbilagotik eta gehiagotan ikusi ahal izateko.

### Ordutegi berria

Azken berrikuntza lasterketen ordutegiak jasango du. Izan ere, San Sebastian Eguneko tanborradaren emisioa dela-eta ETB-koek senior lasterketaren hasiera atzeratzeko eskatu diete Mintxetakoei. Lehen 12:30ean hasten bazen, domekan, 13:10ean hasiko da senior gizonezkoen lasterketa. Lehen lasterketa 10:30ean hasiko da eta 13:30etarako guztiak amaituta egotea espero dute.

2002-1-18

## Sorarrain-Iriartek, Muguruza-Navarroren aurka joka-tuko dute San Antonetako pilota finala, gaur 22:00etan

### Promesetan, Mendizabal eta Oteizak Azpiroz eta Jauregirekin neurtuko dituzte indarrak



***Artxiboko** argazkia*

Sororrain eta Iriarte bikoteak jokatuko du San Anton Pilota Txapelketako finala gaur, barixakua, 22:00etan hasita. Pasa den barixakuan (hilak 11), Ubera II eta Laskurainek osatutako bikoteari bigarren finalerdia 22 eta 12 irabazi ostean lortu dute finalerako txartela Alkizako aurrelariak eta atzelari nafarrak. Ubera elgetarrak eta Laskurain plaentxiarrak DV torneoko azken txapeldunak izan arren, ez zuten beren mailarik erakutsi eta galdu zuten. Sorarrain eta Iriartek Muguruza eta Navarro izango dituzte zain finalean.

Promesa mailari dagokionez, Mendizabal eta Oteizak Azpiroz eta Jauregiren aurka jokatuko dute finala. Mendizabal eta Oteizak 22 eta 15 irabazi zioten finalerdietako partidua Gurrutxaga eta Zabala bikoteari.

## Astiazaran, Realeko presidentea, eta Zuhaitz Gurrutxaga jokalaria izan ziren Zuhieta XXI erakusketa inauguratzen



Dasa den urtarrilaren 15ean inauguratu zen Kultur Etxeko sotoan Zubieta XXI erakusketa. Real Sociedad futbol taldeak Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin antolatu duen erakusketa ibiltaria da. Elgoibar izan da erakusketa ikusgai dagoen lehen herria eta asteazkenean (hilaren 16an) Realeko presidentea, Jose Luis Astiazaran izan zen bertan eta baita Zuhaitz Gurrutxaga ere. Honez gain, Realeko jokalariak izandako elgoibartarrak elkarrekin ikusteko aukera izan genuen. Helburua Realeko kantera probintziara hurbiltzea da eta aldi berean, Zubietako instalazioen garapen arkitektonikoa zein izango den erakustera ematea. Erakusketaren ordutegia honakoa izango da: astegunak 18:30etatik 20:30era. Jaiegunak 12:30etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 5 - Hondarribia 0 (Pref.)
Ilintxa 4 Elgoibar 1 (1. erreg.)
Pedrusko 7 - Bergara 0 (1. erreg.)
Elgoibar 4 Euskalduna 0 (Nad.)
Elgoibar 4 - Intxurre 0 (Jub.)
Behobia 0 - Elgoibar **4 (lnl.)**

### Esku pilota

**San Anton Txapelketa**
Mendizabal/Oteiza 22 - Zabala/Gurrutxaga 15
Ubera ll/Laskurain 12 - SorraraiiVIriarte 22
**Euskal Herriko Liga**
Goenaga/lriondo 22 - Lopez de Egilaz/lruarrizaga 17
**Gipuzkoako Txapelketa**
Lagunak **16** - Azkoitiako 18
Zumaia **18** - Lagunak 8

### Areto futbola

Samsung Elg. **5** - Astrabuduko 4 **(Nazional B)**
Venta Berri 2 - Lanbroa Elg. 4 (1. **maila)**
Laskurain 1 - Meka-Institutua 5 **(Jub.)**
**Eskualdeko 111. Txapelkela**
Mehy's 3- Aizkorak Menbibil 11
Vulthur Griphus 10 - Kon 8 Vasta 0
Brujeria 3 Phoskos 4
Horacio United **6** - Txumurka 5
Bar Lau Bide 3 Ad. Mallabia F.T. 0
Justus 3- Lorea Bar 3
Parafernalia 20 - Guri-Guri **0**

### Eskubaloia

Unceta Elg. 21 - Zarauz 18 (Jub. nesk.)
Tecnifuelle 25 - Usurbil 22 (Senior Mut.)
Zarauz 25 - Tecnomeca Elg. 21 (Kad. mut.)
Zarauz 25 - Pneumax Elg. 24 (Jub. mut.)
Ermua **16** - IMS Elg.18 (Senior **nesk.)**

### Idarraga kafeak 5. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 00/01**

| **JOKALAR1A** | PUNTUAK |
|---|---|
| 1-Salaberria | 69 |
| 2-Joseha Igartua | 68 |
| 3-Loren | 45 |
| 4-ligaide | 44 |
| 5-Navarrete | 42 |
| 6-Leonardo | 37 |
| 7-Elkoro | 31 |
| 8-Guinea | 23 |
| 9-Txasio | 21 |

## AGENDA

### Areto futbola, Kiroldegian

**Barixakua, 18**
**22:10** Lanbroa Elgoibar- Prom. Sukia (Nazional B)

### Futbola, Mintxetan

Zapatua, 19
18:15 Elgoibar - Amaikak-Bat (Jub.)
Domekia, 20
16:00 Elgoibar - Bergara **(Inf.)**
**17:30** Elgoibar Billabona **(Kad.)**

### Esku pilota, Ikastolan

**Barixakua, 18**
**22:00** Mendizabal/Oteiza - Azpiroz/Jauregi
22:45 Muguruza/Navarro Sorraraintiarte

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 19**
15:45 Tecnomeca Elg. - Eskolapios **(Kad. mut.)**
17:15 Pneumax Elg. - Eskolapios **(Jub. mut.)**
19:00 Gaur Elg. - Arrasate **(Jub. mut.)**

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## Agurrak

♦ Zorionak Elgoi6arko portero onenari, urtarrilaren 20an 17 urte beteko diluelako. Aupa Mikell Kuadrilakuen partez.



Zorionak Melani Lozaoori, utiarrilaren 12an 11 urte bete ziluelako. lorearen eta gurasoen partez,



4 Zorionak Arnefs Isasiiri, urharrilaren 15ean uriebele egingo duelako. Noraren eta gurasoen partez.



♦ Zorionak Alex, gaur, hilak 18, 9 urte bete dituzulako. Ondo-ondo pasa. Aiton-amonen, Jonen eta amaren partez.



• Zorionak Iker Zapatari, hilaren 15ean 7 urte bete zituelako. Ainhoo, Iban eta etxekoen parlez.



♦ Zorionak **Maite,** hilaren 21ean "pi" urte beteko diiuzulako. Eixekoen parlez.



♦ Zorionak Felix, hilaren 20an 57 urte beteko dituzulako. Ikusiko duzu noloko sorpresa emango dizugun domekan. Familiakoen partez eta bereziki, Alexen partez.



• Zorionak Ainhoa Urbizuri, urtarrilaren 20an 6 urte betelco dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Asier. Oso** ondo pasa zure 7. urtebetetzears. Mikelen, gurasoen eta familiokoen partez.



• Zorionak Ibairi, hilaren 14an 5 urte bete zituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



• Mila zorion! Zuri hati, bixar berton 7 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak **Leire Arizrnendiri,** hilaren 19an 6 urte beteko dituelako. Familiakoen partez.

-0 1 ffazte "%r~ informazi-oa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461 Ordutegia:*
*Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00*
*Larunbata: 10:00-14:00*

### JARDUERAK

**Bertso Eguna** Donostiako Kursaalen.
Eguna: urtarrilak 26.

### KONTZERTUA

Jabier Muguruzaren "Hain guapa zauden disko berriaren aurkezpen kontzertua Bilboko Kafe Anizokian. Eguna: urtarrilak 24, 22:00etan.

### IKASTAROAK

**Billokizaimikastaroa**
Eusko Jaurlaritzak antolatuta 332 orduko biltokizain ikastaroa. Epea: urtarrilak 22.
**Igeltsuzko panelen Instaladorea**
Eusko Jaurlaritzak antolatuta, 25 urte baino guixiagoko langabetuentzat. Donostian egingo den 500 orduko ikastaro honen ondoren, urtebeteko lan erdiko kontratua izango da.
Epea: apirilak 12.

### LEHIAKETAK

**Ipuirt laburren VI.JM Sauras Lehiaketa**
Andorrako Udalak antolatuta, 18 urtetik gorakoentzat. Lehen saria, 200.000 pezeta eta bigarren saria, 100.000 pezeta. Gaia librea izango da. Epea: otsailak 28.
**"Euskaraz Gazte" literatur lehiaketa**
Orioko Udalak antolatuta, 16 urtetik gorakoentzat. Ipuinak, bertsoak"edota olerkiak aurkez daitezke. Epea: urtarrilak 25.

### LANA

Goi-mailako teknikaria
Errenteriako Udalean goi-mailako teknikarilanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Hautagaiek doktore, lizentziatu, ingeniari, arkitekto titulua eta euskarako 3. hizkuntzaeskakizuna izan behar dute. Epea: urtarrilak 24.
**Arkitektoa**
Errenteriako Udalean arkitekto-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Arkitekto titulua eta 3. hizkuntza-eskakizuna eskatzen dira.
Epea: urtarrilak 24.
**Obretako lardaldeko ofiziala**
Zizurkilgo Udalean obretako lantaldeko ofiziallanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Eskola graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo titulu baliokide bat eta B1 gidabaimena eskatzen dira. Epea: urtarrilak 24.
**Gizarte laguntzailea**
Antzuolako Udalerako Gizarte Laguntzaile postu baten oposaketa-lehiaketa, bertako titularraren amatasun baja betetzeko. Eskakizunak: Gizarte Laguntzaile, Gizarte Lan titulua edo baliokidea, euskarako 3. Hizkuntza-eskakizuna, gidabaimena eta autoa. Epea: urtarrilak 28.
**Administrazio Otiziala**
Puente La Reinako Udalean Administrazio Ofizial bat kontratazeko oposizio-lehiaketa. Eskakizunak: Goi mailako Batxilergo titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua edo titulu baliokidea. Epea: otsailak 5.

ROGAMAZIOA



KARNABALAK 2002

11•1011F
KARNABALETAKO AFARIA

*Entsalada tnistoa*
***
*Bakailaoa iontatearekin eta piperrekin edo eskalope berezia*
***
*Eixeko postrea*
*kurea eta edariak*

*15 € (2.500,,..)*

*Enkargatu berandu baino lehen!*

TOLETXE

Pedro Muguruza 8, beheo Tel. 943 74 19 48


# agenda

## SAN ANTON J AIAK

**URTARRILAK 18, OSTIRALA**
San Anton Pilota Txapelketa
Finalak
Ikastolako frontoian

**URTARRILAK 19, LARUNBATA**
**11:30** Pailazoak
Takolo, Pirritx eta Porrotx
Herriko Antzokian
**18:00** Erraldoi eta burtthandiak
Udal DuLtzainero talclearekin

**URTARRILAK 20, IGANDEA**
Errekamari (Itzal antzerkia)

## 19 BARIXAKUA

1):30 MUGERZA KROSEAN PARTE HARTUKO DUTEN ATLETEI HARRERA
Udaletxeko pleno aretoan

## 20 DOMEKIA

10:30 LIX. MUGERZA KROSAREN HASIERA
Mintxetan
Antolatzaileak: Mintxeta Atletismo Taldea, Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatua

## 22 MARTITZENA

11:90 SAN BIZENTE EGUNEKO MEZA
San Rokeko ermitan

## 25 BARIXAKUA

**19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA**
Ikastolako frontoian
**22:30 KONTZERTUA**
"Barricada", "Humus" eta "Special Quest"
Gaztetxean. Sarrera: 3 euro

## ZINE kluba



### "La Magre y la FuPla"

**Zuzendatia: Julien Temple**
**Dokumentala**

Sex Pistols taldeak disko bakarra grabatu eta 26 hilabetetako iraupena izan zuen. Hala ere, musikaren itxura aldatzeko riahikoa denbora izan zuten eta agian garai guztietako rock talderik ezagunenetarikoa da, Julien Temple zuzendariak taldearen erretratu intimoa, hunkigarria eta lotsagabea egin dit dokumental honetan. 60. hamarkadako Londoneko kale zikinetatik hasi eta Ipar Amerikan egin zuten bira batean taldea banandu zen arteko istorioa kontatzen zaigu.

## zine
KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Dia de entrenamiento"
18, barixakua: 22:15
19, zapatua: 19:30-22:15
20, domekia: 19:30-22:15
21, astelehena: 22:15
"La Mugre y Ia Furia"(Zine Kluba)
24, eguena: 21:30

**EIBA**
• Unzaga

18, barixakua: 19:30-22:15
19, zapatua: 17:00-19:45-22:30
20, domekia: 17:00-19:45-22:30
21, astelehena:19:30-22:15
22, martitzena: 19:30-22:15
23, eguaztena: 11:30-22:15

**"Amor Ciego"**
15, harixakua: 19:30-22:15
19. zapatua:19:30-22:15
20. domekia:19:30-22:15
21, astelehena: 19:30-22:15
12 martitzena: 19:30-22:15

**BERG dades**
**arry Potter'**
19, zapatua: 16:45-1():30-22:30
20. domekia: 16:45-19:30-22:15
2 t, astelehena: 22:15
**"Sunshine"**
24, Eguena: 20:00 (/..ine Kluba)

**AZKOITI, Baztartxo**
**"K...**
1 8, **harixakua: 22:00 i** Zine kitiba)
**"Spy Game"**
**19,** zapatua: 22:00
1 20, domekia: 17:15-19:30-22:00

BARRENek ez du gero fitxazkoen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## 0111TUNAK

**Etxegina taldearen Santa Eskea**

Santa Eskeko Etxegiña Taldea otsailaren 2an, zapatuan, irtengo da Elgoibarko kaleak kantuz eta doinuz alaitzera. Bolatokiko parketik irtengo dira goizeko 9:00etan. Eguerdiko 14:00ak inguruan amaituko dute Errosario kaleko Amabirjinari salbea abestuz. Ondoren, Baltasar E]kartean egingo dute bazkaria. Aurrez, ordea, bi entsaio egingo dituzte urtarrilaren 29an eta 31n Kultur Etxeko sotoan 20:00etan. Parte hartu nahi duen edonork entsaioetara agertzea besterik ez du.

**Santa Ageda baserriz-baserri**

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, baserriz baserri egiten den diru-eskea dela-eta, koroetan parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 22a, asteartea, baino lehen eman beharko dute izena Elgoibarko Izarrara deituta (943 74 16 26-Amaia edo Imanol). Aurten 2 taldetan banatuta jardungo dute kopla kantari eguerdiko 14:30ean hasita. San Migel, San Lorentzo eta Urruzuno dira koplatuko dituzlen baserri-auzoak. Koplariak German Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza izango dira eta trikitilariak, berriz, Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantza.

Dantza ikastaroa

Dantza klasiko eta moderno ikastaroak jaso nahi dituenak Olaizaga Kiroldegian du aukera ekainera bitartean. Umeentzako (4, 5 eta 6 urte) dantza klaseak astelehenetan eta asteazkenetan izaten dira 17:15etik 18:00etara. Nagusientzako ikastaroa (18 urtetik gora), berriz, asteazkenetan 20:30etik 21:30era eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara izango da. Izena Olaizaga Kiroldegian bertan eman daiteke.

**Masaje ikastaroa**

Surya belardendak hasiberrientzako masaje ikastaroa antolatu du. Gorputz masajean dauden teknika ezberdinak irakatsiko dira 9 larunbateko iraupena izango duen ikastaroan. Urtarrilaren 26an, zapatua, hasiko da eta ordutegia honakoa izango da: 10:00etatik 12:30era. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero, dei egin telefono hauetara: 943 74 25 34 edo 626 79 50 24.

## OSPAKIZUNAK

**San Bizente Eguneko meza**

Datorren asteartean, San Bizente Egunean, urtero bezala meza izango da goizeko 11:00etan, baina aurtengoan bada berezitasunik, Juan Maria Uriarte gotzaia izango baita bertan. Meza ostean salda eta txorizoa banatuko dituzte eta iluntzean bailarako hainbat lagunek afaria egingo dute San Bizente eguna ospatzeko. San Rokeko ermitan teilatua, Iurra eta honnak konpondu zituzten iaz, Hainbat margolanekin apaindu dituzte paretak.



## "Dia de entrenadento"

**Zuzendaria: Antoine Fuqua.**
**Antzezleak: Denzel washington, Ethan Hawke, Scott Glenn.**
Berriz ere zinearen munduan horren ohikoak diren polizia bikote baten istorioa kontatzen digu filmak. Alonzo Harris (Denzel Washington) Los Angeleseko polizi departamenduko agenterik eraginkorrenetakoa da. Erabiltzen dituen metodoak oso etikoak ez izan arren, emaitzak begibistakoak dira. Jake Hoyt (Ethan Hawke), berriz, polizia hasiberri eta idealista da eta Harrisi bere bikote izateko gai dela erakutsi nahi dio. Biak murgilduko dira hiriko auzo arriskutsu eta marginaletan.

N

rn

# erretratu zo harra

20024-18



Aste honetako erretratua Carmen Agirregomezkortak laga digu. Begira zer nolako neska gazte koadrila bildu zen Carmen Larrariagaren "despedidan", 1957. urtean, denak ere sanpedrotarrak. "Barrutia" jatetxean egin zuten bazkaria. Gaur egun, "Banco Santander" dagoen lekuan. Ederki eta umore onean pasa zutela eguna esan digu Carmenek.

Hauek dira erretratuan azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Jesusa Arrillaga (Aranburu baserrikoa), Pakita Zigorraga (Ipintza baserrikoa) eta Jesusa Kortabarria (Otso Txiki baserrikoa).

Behean: Maria Zigorraga (Ipintza baserrikoa), Carmen Larrañaga (Legarda baserrikoa), Carmen Agirregomezkorta (Arraitza baserrikoa) eta Felisa Balzola (Otso Handi baserrikoa).



*ESKERTZA*

*2001eko abenduaren 27an, 76 urte zituela hil zen ILLAN AGUSTIN IRIONDO LAZAROBASTERren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*ESKERTZA*

*2002ko abenduaren 28an, 67 urte zituela hil zen CARMELO MODAMIO DE LE(iNen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta.elizkizunetara agertu izana.*



# MULT1OPTICAS lalind"'"

# Multi ESKAINTZAK

## Z ERBITZ U OPTIKOETAN LEHENA

*Hemen dira berriz ere MultiOpticasen Multieskaintzak.*

**LENTE***
**PROGRESIBOAK**

Distantzia guztietara ikusi ahal izateko

**118** 19.634pta



**PEPE JEANS**

**62** 10.315pta

Mod. PJ 36 A





**EL1OT, BUZZ** eta **POTTER**

**30** 4.991pta.

**BONARDI MONTURAK**

Familia guztiarentzat

**25** 4.160 pta.

**60 URTETIK GORAKOENTZAT**

Armazoia + kristalak*

**54€** 8.985 pta.



**MULT1OPTICAS Untir"'A**

SAN FRANTZISKO, 21 • TEL. 943 74 03 59
OSTOLAZA, 7 • TEL. 943 19 21 92 • DEBA

MuLTIOKKAINI

R .A1 t...

sk'\"Jrr/

wwww.muitiopticas.com

2002-02-28ra arteko eskaintla
* +/- 4ko ESF. + /-2ko ZIL.ko lente zurientzako eskaintza

# Anch astegui

ancnustegue

**Sanyfer**

BAINURAKO ALTZARIAK

KOMUN -ONTZIAK

KAN I LAK

BAINURAKO OSAGARRIAK

ETXERAKO BURDINDEGIA

IN DUSTRIARAKO HORNIKUNTZAK

BURDINDEGFPROFESIONALA

ETXERAKO TRESMAK






## Anchistegui

Olaso Industrialdea
Olasope, 5
83 Posta kutxatila
20870 ELGOIBAR

ERAKUSKETA eta BULEGOAK
Tel.: 943 74 33 44 - 943 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

ALMAZENA
Tel.: 943 74 20 38 - 943 74 23 71
E-maila: sanyfer@anchustegui.com